



---

## **A K T A**

Aiarako Kuadrillaren **TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK** egindako ohiko bilkurarena,

### **2020ko irailaren 2koa**

Arespalditzako Aiarako Kuadrillaren egoitzan, **13:14ak direnean**, jarraian zerrendatzen diren batzarkideak elkartu dira **ohiko bilkura egiteko, lehen deialdian**. Aiarako Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzordeko presidente **Encina Castresana Astarloa andrea** izan da bilkuraren burua, eta M<sup>a</sup> Virginia Carcelén García andrea, behean izenpetzen duena, aritu da idazkari-lanetan.

Jarraian aipatutako jaun-andre batzarkideak bertaratu dira:

**Encina CASTRESANA ASTARLOA and. (EAJ-PNV)**  
**Gentza ALAMILLO UDAETA jn. (EAJ-PNV)**  
**Josune IRABIEN MARIGORTA and. (EAJ-PNV)**  
**Ander AÑIBARRO MAESTRE jn. (EAJ-PNV)**  
**Joseba VIVANCO RETES jn. (EH BILDU)**

Ez da bertaratu eta ez etortzea justifikatu du honako jaun batzarkide honek:

**Jon ESCUZA DEL CAMPO jn. (EAJ-PNV)**

Ez dira bilkurara bertaratu Talde Politiko Batzarkideetako bozeramaileak, gonbidatuak izan arren.

Gonbidatua ere izan da (hitzarekin baino botorik gabe) Eneritz Alonso Montaña, Okondoko Udaleko jarduneko alkatea. Era berean, Maddalen Amurrio eta Aintzane Arbaizagoitia teknikariek ere parte hartu dute, dagozkien sailetako puntuak azaltzeko.

Añibarro Maestre jaunak bilkura utzi du 14:33an, gai-zerrendako 10. puntua eztabaidatzen ari zirenean.

Kuadrillako presidente andreak, **lehenengo deialdian, 13:14an**, osoko ohiko bilkura irekita dagoela adierazi du, idazkariak bilera abiarazi ahal izateko quoruma badagoela egiaztatu ondoren, Kuadrillak arautzen dituen Foru Arauaren (azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua) 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, besteak beste abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazitako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) 46.2.c) artikuluari lotuta. Halaber, agindu du ezarritako gai-zerrendari jarraituko diotela.



---

## **1.- IRAKURTZEA ETA ONESTEA, HALA BADAGOKIO, AZKENEKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA**

Deialdiarekin batera, egindako azken bilkuraren aktaren zirriborroa erantsi da, hori aztertzeko, eta ez dagoenez inongo alegaziorik, **ERABAKI DA**, aho batez, 2020-07-15eko bilkuraren akta onestea.

## **2.- KUADRILLAKO LZren LANA FINANTZATZEA**

Jakinarazi da, ikusita Saileko Informazio Batzordeak 2020-06-16an egindako bilkuran Kuadrillako aurrekontuaren azterketari dagokionez hartutako erabakia, lan horren finantzaketari aurre egin ahal izateko, ikusten ari garen moduan, egoera okerrera egiten ari dela; izan ere, finantzaketa-murrizketa berriak daude, eta, gainera, lan horren kostuari dagokionez, udalek guztizko finantzaketari aurre egin beharko liokete, Kuadrillak ez duelako finantzaketa-iturririk, eta ezin duelako murrizketarik egin bere partidetan.

Akordio horretan aipatzen zen lan honen aurrekontua udal-aurrekontuetan nola txertatuko zen, plegu arautzaileen zirriborroak aurkeztu baino lehen, espediente hau kontratatu ahal izateko, eta udalen ekarpenen bidez finantzaketa % 100ekoa denez, beharrezkoa da aurrekontu-esleipena adostea, udalek dagozkien zenbatekoak emateko konpromisoa har dezaten. Aurrekontuan, 24.000 euro daude ezarrita, baina, alde aurretik kontsultak eginda, komenigarritzat jo da zenbateko horri BEZa gehitzea, hau da, guztira, 29.040, BEZa barne.

Jarraian, aztertu eta eztabaidatu da **PRESIDENTETZAKO** Informazio Batzordeak, **ADMINISTRAZIO-JARDUERAK**, **FUNTZIO PUBLIKOAK**, **UDALBATZAK**, **FORU-ADMINISTRAZIOAREKIKO HARREMANEK** ETA **BESTE ERAKUNDE**, **OBRA** ETA **ZERBITZU BATZUEK** 2020-08-7an egindako bilkuran emandako irizpena.

Horretarako izandako eztabaida amaitutakoan, gehiengoz **ADOSTU DA**, aldeko 4 botorekin eta Vivanco Retes jaunaren abstentzioarekin (egin beharreko lana dela uste du eta, beraz, lan hori egitearen aurka ez dagoela justifikatu du, baina Artziniegako Udaleko langileek lan hori egiteko eskatu dutenez eta egin ez den lana denez, uste du, Udalean egin ez bada, ezin duela onetsi Kuadrillan egitea Udalean bertan egin baino lehen). Horretan oinarrituta, honako **ERABAKI** hau hartu da:

**LEHENENGOA.-** Onestea Kuadrillako LZ egiteko lanerako ezarritako aurrekontu-partidaren aldaketa, lizitazio-tasa 24.000 euroko izan dadin, gehi 5.040 euroko BEZa; guztira 29.040 euro, BEZa barne.

**BIGARRENA.-** Udalek finantzaketaren ekarpena honela banatzea onestea:



---

GUZTIRA	29.040 €	
Laudio	% 52,84	15.345,66 €
Amurrio	% 29,86	8.670,44 €
Aiara	% 8,61	2.500,99 €
Artziniega	% 5,31	1.543,42 €
Okondo	% 3,37	979,49 €
	<b>% 100</b>	<b>29.040,00 €</b>

### 3.- BALDINTZARIK GABEKO FINANTZAKETAREN MURRIZKETARI BURUZKO INFORMAZIOA

Jakinarazi da uztailaren amaieran Foru Aldundiak (Lurralde Oreka Sailak) jakinarazi digula **baldintzarik gabeko** finantzaketa murriztu egin dela, 54.000 eurotik 43.200 eurora.

Finantzaketaren murrizketa horri Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtzaren finantzaketa-murrizketa gehitu behar zaio, 183.664,94 eurokoa, Oinarrizko Tartean.

Bertaratutakoek gaia eztabaidatu dute, eta erakunde guztietan egiten ari diren murrizketa guztiak ikusita, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA.**- Aurrekontuaren gauzatze-egoerari buruzko txosten bat aurkeztea, eta Kuadrillako aurrekontuari egin beharreko balizko doikuntzak aurkeztea, finantzaketan izandako murrizketak arindu ahal izateko, eta, udalen ekarpenetan gerta daitezkeen gutxitzeei dagokienez, gastuak izan ditzakeen murrizketak aurkezteko.

### 4.- KUADRILLAKO PRESIDENTEA LANALDI PARTZIALEAN KONTRATATZEA

**Presidente andreak** jakinarazi du, 2020ko aurrekontuaren onespenean gogoratuko den moduan, Presidentetzaren lanaldi partziala sartu zela, lanaldiaren % 50ekoa, guztira, 27.000 euroko kostuarekin. Partidetan banatuta, urteko ordainsari gordinak 20.000 eurokoak dira, eta Gizarte Segurantzaren kostua, berriz, 7.000 eurokoa.

Neurri hori aplikatzeko, eskaintza esleitu zaion Udalbatzako kidearen onspena behar da, eta onspen horretatik aurrera hasten da haren eraginkortasuna; osoko bilkurari (Kuadrillako Batzarrari) jakinaraziko zaio hurrengo bilkuran, eta onuradunak Udalbatzaren alde duen lan-gaitasuna erabat eskura jartzea ekarriko du. Hori dela eta, adostutako ordainsaria jasoko du, finkoa eta epemugan aldizkakoa izango da.



---

Zentzu horretan, Presidentetzak jakinarazi du onetsi egin zuela eskaintza hori 2020ko abuztuaren 1ean, eta horren berri eman da bilkura honetan. Era berean, Kuadrillako Batzarrari jakinarazi behar zaio hurrengo bilkuran. Neurria koronabirusak eragindako egoera ekonomikoan oinarrituta justifikatzen du.

Azalpena bukatu ostean, eta eztabaidarik sortu ez denez, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

## **5.- GIZARTE-ZERBITZUAK FINANTZATZEKO LANKIDETZA-HITZARMENA**

Jakinarazi da, Foru Gobernuaren Kontseiluak 2020ko abuztuaren 4an egindako bilkuran, lurraldeko udalekin eta kuadrillekin sinatutako zenbait hitzarmen finantzatzea onetsi zela, aurten oinarritzko gizarte-zerbitzuak emateko, 1.069.000 euroko zenbatekoarekin.

Arabako Foru Aldundiak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen (GOFEren) bidez, 20.000 biztanletik beherako Arabako udalerrietako oinarritzko gizarte-zerbitzuen baliabide pertsonal eta materialen % 80a finantzatzen du, nahiz eta udal-eskumenekoak baino ez izan.

Kanpezu-Arabako Mendialdea, Gorbeialdea, Guardia-Arabako Errioxa, Arabako Lautada eta **Aiarako Kuadrillekin** eta Gaubea, Añana, Lantaron, Audio, Iruña Oka, Kuartango, Armiñon, Berantevilla, Zanbrana, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Aiara eta Amurrioko Udalekin egindako hitzarmenei dagozkie onetsitako finantzaketak.

Oinarritzko gizarte-zerbitzuak udaleko gizarte-zerbitzuetan arreta integratua emateko unitate balioaniztunak eta diziplina anitzekoak dira, eta herritarrak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari sartzeko lehen pausoa dira. Haren eginkizun nagusia gizarte-premiak hautematea eta arreta ematea da, baita herritarren eskura dauden zerbitzuen eta prestazioen informazioa, koordinazioa eta kudeaketa ere.

**Presidente andreak** azaldu du, nahiz eta oraindik ez den horren berri eman, informazio hori ALHAOn argitaratu dela, eta Kuadrillari noiz jakinaraziko zaion zain gaudela.

Azalpena bukatu ostean, eta eztabaidarik ez dagoenez, denak jakinaren gainean geratu dira.

## **6.- GIZARTE-ZERBITZUETARAKO ORDENAGAILU ERAMANGARRIA EROSTEA**

Jakinarazi da jakinaren gainean geundela gizarte-zerbitzuetako administrari laguntzaileak esleituta duen ordenagailua arazo larriak sortzen hasi dela, eta, beraz, berria erosi behar dela, oinarritzko gizarte-langilearen baldintza tekniko berberekin, GOFEk kargatu



---

behar dituen programak direla eta. Erosteko baimena eskatu da, saileko teknikariaren ordenagailuaren prezio berean.

**Alamillo Udaeta jaunak** eskerrak eman dizkio Kuadrillari zerbitzu horretan behar den ordenagailua erosteagatik; izan ere, orain arte, Aiarako Udalak ematen zituen baliabide horiek.

**LEHENENGOA.-** Onetsi da Gizarte Ongizateko Sailerako ordenagailu bat erostea, 659 euroko zenbatekoagatik eta 138,39 euroko BEZarekin; guztira, **ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA HOGEITA HEMERETZI ZENTIMO (797,39 €)**.

## **7.- EUSKARA SAILA:**

### **7.1.- URTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUAREKIN**

Teknikariak azaldu du 2020rako Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua-Aiarako Kuadrilla hitzarmena berritzeko eskatzen dela: Hitzarmena **II. ERANSKIN** gisa erantsi da, eta urte horretarako plangintza eta aurrekontua gehitu dira. Aurreko urteetan bezala, 2.750,00 euroko dirulaguntza eskatzen da urtean.

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua eskualdeko 40 erakundek euskararen normalizazioan laguntzeko sortutako kontseilua da. Urteko bezala, 2.750,00 euroko dirulaguntza eskatu dute beren jarduerak gauzatzeko; besteak beste, **EUSKARALDIA** programa antolatzeko, Euskararen Eguna, aurreko urtean hainbat arlotan sortutako foroak indartzeko (hezkuntza, kirol-elkarteak, kultura- eta jolas-elkarteak, gazteria eta lan-mundua) eta lantaldeak indartzeko.

**Añibarro Maestre jaunak** azaldu du egungo egoera dela eta, udal gehienek ezin dituztela ohiko jarduerak egin, eta galdetu du ea Kuadrillaren eta elkarte horren arteko hitzarmen honetan aurreikusitakoak egin ahal izango diren.

Teknikariak azaldu du, Euskaraldiaz gain, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak askoz ere jarduera gehiago egiten dituela, eta egungo egoeran egiteko proposamenak daudela.

**Irabien Marigorta andreak** azaldu du Euskara Batzordeak egindako iragan bilkuran azaldu zela talde horrek Kuadrillari laguntza ekonomikoa eta aholkularitza teknikoa eskatzen zizkiola. Elkarte hori 40 taldek baino gehiagok osatzen dute, eta bere ustez, bost Udalei eta Kuadrillari finantzaketa eskatzen bazaie, politikariek talde horren bilkuretan parte hartu ahal izatea ere eskatu beharko genuke, saileko plangintzan ikuspegi hobea izateko; bestela, politikariek bilkuretara joaten diren teknikarien informazioa baino ez dute, baina ez dute egoeraren ikuspegi orokorrik, teknikariaren iritzia soilik.



**Alamillo Udaeta jaunak** azaldu du positiboa dela elkarte horretan presentzia handiagoa eskatzea, eta uste du eskualdeko erakundeen presentzia falta dela Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluan.

**Irabien Marigorta** andreak azaldu du erabakiak hartzeko orduan faltan sumatzen duela elkarte horretako kide ez izatea, plangintzari begira eta erakundeek politika bateratua egin ahal izateko.

Une horretan, eztabaida luze bat egon da horren inguruan. Eztabaida horretan, azpimarratu da saileko teknikariak gutxienez saileko arduradun politikoarekin joan behar direla bilkura horietara.

Eztabaida horretatik eta Udalek, gainerako erakundeek bezala, ikuspuntu ekonomikotik, aurrekontuei aurre egiteko duten arazotik, Kuadrillako aurrekontu-eztabaidan arreta handiagoa jarri behar dela nabarmentzen da, eta eskatu da zerbitzuen eta gainerako sailtako kostuak banatzeko irizpideak sakon aztertzeko, zalantzarik egon ez dadin eta kostuak banatzeko irizpideak argi eta garbi ezarrita gera daitezen.

Eztabaida luzea bukatu ostean, bozketa egin da eta aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA.-** Onetsi da **Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluari, lankidetzaz hitzarmen bidez, 2.750,00 euroko** ekarpena egitea, beren 2020ko jarduerak gauzatzeko; besteak beste, **EUSKARALDIA** programa antolatzeko, Euskararen Eguna egiteko, aurreko urtean hainbat arlotan sortutako foroak indartzeko (hezkuntza, kirol-elkarteak, kultura- eta jolas-elkarteak, gazteria eta lan-mundua) eta lantaldeak indartzeko.

**BIGARRENA.-** Kolektibo horren bilkuretara saileko teknikariak joatea, dagokion ordezkari politikoak lagunduta.

## **7.2.- AFA-AIARAKO KUADRILLA HITZARMEN-ESKAERA, 2020an EUSKARA GIZARTERATZEKO**

Saileko teknikariak jakinarazi du euskara gizarteratzeko AFA-Aiarako Kuadrilla 2020 hitzarmena berritzeko eskatzen dela. Hitzarmen horrek 7.200,00 euroko laguntza ekonomikoa du (% 100eko finantzaketa). Arabako Foru Aldundiak, 2020ko gastuen aurrekontuan, 2016an sortutako partida bat du, euskara sustatzen laguntzeko, Kultura Sailaren eta Lurraldeko Kuadrillen arteko lankidetzaz hitzarmenak sinatuz, bakoitzari 7.200,00 euroko ekarpena egiteko (% 100eko finantzaketa), euskararen gizarteratzea bultzatuko duten programak garatzeko.

Honako hauek aintzat hartuta:

- 2020ko erreferentzia-programa, maila guztietan (udalekoa, eskualdekoa, lurraldekoa...), EUSKARALDIA izango da.



- 
- 2020ko EUSKARALDIA behar bezala garatzeko, ezinbestekotzat jotzen da 5 udalerriak hartuko dituen dinamizazio-zerbitzu bat kontratatzea uztailetik abenduaren hasierara arte (3 hilabete).
  - EUSKARALDIAREN gasturik garrantzitsuena dinamizazioaren atalean aurreikusten da, eta AFAK hitzarmen honen bidez baino ezin izango dio diruz lagundu. Horretarako, ezin izango da erabili urteko dirulaguntzen deialdia.

2020ko Hitzarmena erabiltzea proposatzen da, Kuadrillako 5 udalerrietan EUSKARALDIA 2020 programa dinamizatzeko gastua 7.200,00 eurotan murrizteko.

EUSKARALDIA euskara ulertzen duten hiztunen hizkuntza-ohiturak aldatzea helburu duen ariketa soziala da, gizarteko gune guztietara hedatua eta denboran mugatua. Euskaraldiaren helburu nagusia herritarren hizkuntza-ohiturak aldatuz euskararen erabilera areagotzea da. 2020an, azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo da, eta, aurten, banaka parte hartzeko aukera izateaz gain (*ahobizi* edo *belarriprest* rol ezagunen bidez), taldean parte hartzeko aukera ere izango dugu, *arigune* direlako bidez.

Egiten diren ekarpenei buruz eztabaidatu da. Kuadrillak egiten duen ekarpenaz gain, **Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren** bidez Udal bakoitzak Euskaraldiari egiten dion ekarpena, **2020an, guztira, 27.089 euro finantzatzeko.**

**Irabien Marigorta andreak** azaldu du ez daudela egiten diren ekarpenei buruzko datu guztiak, eta azaldu du, adibidez, ez dakitela zer ekarpen egiten dituzten Bizkaiko Udalek (Orozko, Arakaldo, Arrankudiaga eta Urduña).

Hala ere, oraindik ez dakigu AFAK Kuadrillari hitzarmen hau finantzatzeko emango dituen azken laguntzen ebazpena, eta laguntza hori emateko ebazpenari dagokion hitzarmena izenpetzeko itxaron beharko da.

Eztabaida bukatu ostean, bozketa egin da eta aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA.**- AFARI eskatzea 2020rako lankidetzeta-hitzarmen izenpetu dezala, euskara gizarteratzeko 7.200 euroko ekarpena jasotzeko.

**7.3.- 2020rako FORU-LAGUNTZAK ESKATZEA,  
EUSKARAREN BIDEZKO  
SOZIALIZAZIO-PROGRAMETARAKO**

Saileko teknikariak jakinarazi du Diputatu Nagusiaren uztailaren 27ko 238/2020 Foru Dekretuaren bidez (2020-08-10eko ALHAOn argitaratua) dirulaguntzen deialdi publikoa onetsi zela, udalek eta kuadrillek sustatutako euskararen bidezko sozializazio-programak garatzeko, 2020 ekitaldian. Ildo horretan, euskararen bidezko sozializazio-programetarako 2020ko foru-laguntzen eskaerak aurkezteko programa-proposamena aurkeztu du; horren epea 2020ko irailaren 9an amaituko da.



Proposatzen da AFari, guztira, 8.000 euroko gastu-aurrekontua eskatzea jardueretan, EUSKARAZKO HAINBAT JARDUERETARAKO partidaren bidez, 2020ko udazkenean AIARALDEA EUSKARAZ 2020 garatzeko helburuarekin, 5 Udalekin koordinatuta, eta aurreko urteetako irizpide orokorrei jarraituz (programazio-epeei, udalerrri bakoitzean programatzeko aurrekontuaren banaketari, jarduera-tipologiari eta defizitaren finantzaketari dagokienez).

**PROGRAMAZIO-EPEARI BURUZKO PROPOSAMENA:** Programak gutxienez hilabete bateko eta gehienez bi hilabeteko iraupena izatea proposatzen da, 2020ko irailaren amaieraren eta azaroaren amaieraren artean, euskara-zerbitzuen artean koordinatuta zehaztu beharrekoa.

**UDALERRI BAKOITZEAN PROGRAMATZEKO AURREKONTUAREN BANAKETARI BURUZKO PROPOSAMENA:** Proposatzen da jardueretarako aurrekontua (guztira 8.000,00 €) 5 Udalen artean zati berdinetan banatzea (udalerrri bakoitzean programatzeko 1.600,00 €)

**JARDUEREN-TIPOLOGIARI, GASTU-AURREKONTUARI, AURREIKUSITAKO DIRU-SARREREI ETA DEFIZITAREN FINANTZAKETARI BURUZKO PROPOSAMENA:** Helburua da euskararen bidezko sozializaziorako interesgarritzat jotzen diren eta garatuko diren udalerrriko egoeretara egokitzen diren jarduera motak programatzea. Jarduera mota hauek edo antzekoak proposatzen dira, lehentasunez HAUR ETA GAZTEEN edo FAMILIAREN sektorerantz zuzenduta (gurasoak + seme-alabak/gurasoak), eta saiaturik da programa orokorrean proposatutako askotariko jarduerak edo antzekoak sartzen, kasu zehatz bakoitzerako proposamenak pertsonalizatzeko aukerarekin (iraupena, monitore kopurua...), betiere gastu osoaren aurrekontuaren eta onesten den banaketa-irizpidearen barruan.

**GASTU-AURREKONTUA**

- Euskara-Kirola-Berdintasuna (aurrekontua: 1.800,00 €)  
Sentsibilizazio-hitzaldia kirolarietara, irteera didaktikoa dinamizatzaileekin, beste batzuk.
- Gazteentzako jarduerak (aurrekontua: 2.200,00 €)  
Bakarriketak, inprobisazioa, ikus-entzunezko proiektuak; IKT (argazkia edo bideoa / euskarazko aplikazioak / sare sozialak...), bertso-lehiaketa, generoaren trataerari buruzko prestakuntza hainbat euskarritan, beste batzuk.
- Haurrentzako edo familientzako tailerrak eta familientzako partaidetza-jarduerak (aurrekontua: 3.200,00 €)  
Ipuin kontaketa, ipuin tailerra, eskulanen tailerra (banakako materialak), irteera didaktiko gidatua familian, kontzertu didaktikoa (instrumentuak / euskal abestiak eta koreografiak...), beste batzuk.
- Euskara erabiltzeko prestakuntza (aurrekontua: 800,00 €)  
Etxeko ingurunean, gurasoentzat, eskola-eremuan, begiraleentzat, beste batzuk.

**JARDUERA-GASTUAREN AURREKONTUA, GUZTIRA: 8.000,00 €**

**AURREIKUSITAKO DIRU-SARRERAK ETA DEFIZITAREN FINANTZAKETA**  
AFA (2020ko dirulaguntza, gastuaren % 40) 3.200,00 €



---

Defizitaren finantzaketa: bost udalen artean, biztanleria-irizpidearen arabera,  
(Gastuaren % 60) 4.800,00 €  
**AURREIKUSITAKO DIRU-SARRERAK, GUZTIRA: 8.000,00 €**

Eztabaida sortu da udal bakoitzean egin beharreko jarduera-proposamenei buruz, eta azaldu da, hasiera batean, jarduera horiek ezartzen direla, baina laguntzak emateko ebazpena izan ondoren zehaztuko direla.

Eztabaida bukatu ostean, bozketa egin da eta aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA.-** Diputatu Nagusiaren uztailaren 27ko 238/2020 Foru Dekretuaren bidez deitutako 2020rako foru-laguntzak eskatzea euskararen bidezko sozializazio-programetarako, **AIARALDEA EUSKARAZ** 2020rako proposatutako programaren arabera, 8.000 euroko aurrekontuarekin.

**BIGARRENA.-** **AIARALDEA EUSKARAZ** 2020 programa garatzea, Laudioko eta Amurrioko euskara-zerbitzuekin koordinatuta, urritik azarora bitartean, hilabete 1 eta 2 arteko iraupenarekin, udalerrri bakoitzean programatzeko 1.600,00 euroko aurrekontuarekin, eta AFaren dirulaguntzek estaltzen ez duten zatia finantzatzea, biztanleria-irizpidearen arabera, 5 udalen artean.

**HIRUGARRENA.-** **Aiarako Kuadrillak** konpromisoa hartzen du aisialdiko programak (udalekuak, jolas-txokoak, ludotekak, gaztelekuak edo antzekoak) egingo dituzten langile guztiek gutxienez batxilergoa euskaraz eginga izan behar dutela, edo B2 maila dutela egiaztatu behar dutela, hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren edo baliokidearen arabera.

**LAUGARRENA.-** **Aiarako Kuadrillak** konpromisoa hartzen du aisialdiko programa horietaz (udalekuak, jolas-txokoak, ludotekak, gaztelekuak edo antzekoak) arduratzen diren langileen % 50 gutxienez euskararen bidezko sozializazio-ikastaro bat eginga izateko programa hasi aurretik.

#### **7.4.- EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA: 2020rako HITZARMEN-ESKAERA**

Saileko teknikariak honako informazio hau eman du:

2020rako Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua-Aiarako Kuadrilla hitzarmena berritzeko eskatu da eta urte horretarako kudeaketa-planaren eskema erantsi da (**III. ERANSKINA**). Aurreko urteetan bezala, urteko 1.000 euroko dirulaguntza eskatu da.

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua euskararen garapen osoa helburu duten erakundeen topagunea da, maila, pertsonal, sozial eta ofizialean euskararen normalizazio edo berreskuratze integrala lortzeko.



Eztabaida bukatu ostean, bozketa egin da eta aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA.-** Onestea **Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak** 1.000 euroko dirulaguntza izenduna ematea, lankidetzaz hitzarmenaren bidez.

## **8.- ARTZINIEGAKO ARAU SUBSIDIARIOEN 5. ALDAKETA PUNTUALAREN INGURUMEN-BILAKAERA ESTRATEGIKOAREN PROZEDURAREN KONTU EMATEA**

Saileko teknikariak jakinarazi du, plangintzari dagokionez, puntu honetan 2 gai daudela:

- **BIZKAIKO BIZIKLETA BIDEEN LPSa onesteko prozedura:** 2020ko uztailaren 29an, 399. zenbakiarekin, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitura eta Lurralde Garapen Saileko Bide Berrikuntzarako eta Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusiaren jakinarazpena erregistratu zen, **Bizkaiko Bizikleta Bideen LPSari** buruzko aurrerapen-dokumentuari buruzkoa. 2019an lehen fasea egin ondoren, berriro ere 2 hilabeteko epea ireki da Aiarako Kuadrillak eta haren udalerriek egoki irizitako ekarpenak aurkezteko. Aurrerapen-dokumentuak esparru kontzeptual bat eta helburu sare bat jasotzen ditu, Aiarako Kuadrillan lehendik dauden sareekin lotura dutenak, hala Nerbioiko Parke Linealarekin.

Jarraian, adierazi du Bizkaiko LPSa oso dokumentu orokorra dela, eta, Kuadrillari dagokionez, Nerbioiko Parke Lineala baino ez dela aipatzen, gai hori Arabako LPSaren onespenearekin lotzen du; Arabako LPSa hasierako onspen-fasean dago, eta zenbait alegazio egin zitzaizkion bere garaian. Adierazi du, gainera, horietako asko ez direla ikusi eta ez dira jaso Planaren hasierako onspenean (Artzeniegatik Gordexolara doan bidea eta Amurriorekin Murga poligonoarekin eta Arespalditzarekin duen lotura; gainera, ez da sartzen Audio-Okondo komunikazioa, Gasteizko ibai-parkea Sopenarekin, ezta GPR bideak ere).

Bizkaiko LPSari dagokionez, Artzeniegatik Balmasedarako komunikazioa sartzea falta dela adierazi du, eta proposatu da alegazio horri erantzea bide hori Menagairekin (Lanteno-Ureta-Artzeniega) komunikatzea.

Halaber, proposatzen da hobi biltzaileen kanalizazioetarako desjabetzeetan bide horiek desjabetzeko ere balio izatea.

Aldundiari alegazio horietan laguntza eskatzea, eta AFak aurrerapen-dokumentu horri alegazioak aurkeztuko dizkion edo aurkeztuko dituen jakinaraztea teknikariari.

- **ARTZINIEGAKO ARAU SUBSIDIARIOEN 5. ALDAKETAN INGURUMEN-INPAKTUAREN AZTERLANARI** buruz egindako jakinarazpenari dagokionez: teknikariaren harridura adierazten da, ez baitzaigu inoiz udal-plangintzari buruzko alegazioen inguruko galderarik jakinarazi, eta ez baitugu ulertzen zergatik jakinarazten zaigun hori, gainera, Kuadrillak ez baitu hirigintza-eskumenik.

Azalpenak bukatu ostean, jakinaren gainean geratu dira guztiak.



---

## 9.- HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK BILTZEKO ZERBITZUA

Saileko teknikariak zerbitzuaren alderdi hauen egoeraren eta garapenaren berri eman du:

**- Karakterizazioen lehen kanpaina:**

Jakinarazi da irailaren 7an hasiko dela gainerako frakzioaren karakterizazioa, udalerriz udalerriz. CESPAn enpresa esleipendunaren betebeharrak bat zen.

**- Hondamendien aurrean jarduteko protokoloa ematea:**

CESPAn enpresaren beste betebeharrak bat zen, eta, dagoeneko, hondamendien aurrean jarduteko protokoloa eman dio Kuadrillari. Haize bortitza dagoenerako edukiontzia ainguratzeari buruzko gaia barne hartzen du. Kuadrillak zehaztu behar du non egin.

**- Laudion atez ateko ibilbidea behin betiko ezartzea:**

Ezartzeke zegoen, Aldundiak egiten duen bilketaekin gainjartzen zelako. Udal bakoitzeko foru-bilketa osatzen duen zerbitzu hori zertan datzan azaldu da.

Une honetan, 14:33ak direnean, Añibarro Maestre jauna bilkuratik irten da.

**- Edukiontzien inbentarioa eguneratzea:**

Egiteke dago.

**- 8 minipuntu eta 3 olio-edukiontzi berri instalatzea:**

Datorren astean 15 edukiontzi berri iritsiko dira.

**- Binilo informatiboak instalatzea.**

**- Osasun-larrialdiko egoeraren barruko jarduketa:**

Bilketa pneumatikoa indartzeko edukiontzia instalatzea, gel hidrolizatzailea, etxez etxeko bilketa komertzialetan merkatariak bete beharreko neurri zehatz batzuen arabera soilik jasotzen da, hipokloritoarekin desinfektatzea, etab.

**- Zerbitzuaren kudeaketa:**

Oro har, esan daiteke zerbitzua nabarmen hobetu dela, oraindik gauzatzeke dauden kontuak egon arren.

Azalpenak bukatu ostean, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

## 10.- EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZEN DEIALDIA, TOKI-ERAKUNDEETAN GARAPEN JASANGARRIA SUSTATZEN DUTEN JARDUERAK GARATZEKO



Saileko teknikariak Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko uztailaren 21eko AGINDUAREN irismenaren berri eman du. Agindu horren bidez, garapen jasangarria sustatzeko ekintzak egiten dituzten udalei, mankomunitateei, beste toki-erakunde batzuei, tokiko erakunde autonomoei, tokiko garapen-agentziei eta tokiko merkataritza-sozietateei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira eta deialdia egiten da (abuztuaren 1eko EHAAn argitaratua).

Eskatu ahal diren bi laguntza lerroak azaldu dira.

Eztabaida bukatu ostean, bozketa egin da eta aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA.-** Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko uztailaren 21eko AGINDUAREN bidez deitutako laguntzak eskatzea. Agindu horren bidez, garapen jasangarria sustatzeko ekintzak egiten dituzten udalei, mankomunitateei, beste toki-erakunde batzuei, tokiko erakunde autonomoei, tokiko garapen-agentziei eta tokiko merkataritza-sozietateei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira eta deialdia egiten da (abuztuaren 1eko EHAAn argitaratua, 150. zk.).

Finantzaketari dagokionez, Kuadrillak konpromisoa hartzen du dirulaguntzak estaltzen ez duen kostuaren zatia finantzatzeko; Kuadrillako Udalen ekarpenen bidez egingo da, sail horretarako onetsitako finantzaketa-irizpidearen arabera.

Laguntza-deialdi honen eskaera honi aurkezten zaizkion laguntza-eskaerak honako hauek dira:

<b>Lerroa</b>	<b>Proiektua</b>	<b>Egikaritze-epea</b>	<b>Dirulaguntzaren gehieneko %</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
Ingurumen-hezkuntza eta Eskola Agenda 2030	Eskualdeko ekintzak, eskualdeko foroa, garraioa, etab. dinamizatzea, 2020-2021 "klimaren aldeko ekintza" gaiaren barruan	2021/09/15	% 50	<b>7.000 € gutxi gorabehera, BEZik gabe.</b>
Ekonomia zirkularra	Elektronikoki sortu eta ixteko ordainketa-sistema bat ezartzea	2022/10/28	% 80	<b>125.000 € gutxi gorabehera, BEZik gabe.</b>

Bilkuraren une honetara iritsita, aho batez erabaki da premiazkotzat jotzea eta gai-zerrendan puntu hauek sartzeara:



- 
- 12.- OKONDOKO GARBIGUNEAREN KOSTUA BANATZEKO IRIZPIDEA  
13.- ESKUALDEKO GARRAIOARI BURUZKO AZKEN INFORMAZIOA

## **12.- OKONDOKO GARBIGUNEAREN KOSTUA BANATZEKO IRIZPIDEA**

Jakinarazi da Artziniegako alkateak idazki bat bidali duela, eta, bertan, gai hau bera bertaratu ez zen bilkura batean zergatik onetsi den azaltzeko eskatu duela. Gai hori Okondoko alkatea bertaratu ez den bilkuretan aintzat hartu baita, eta alkateak azpimarratu nahi izan du gai horri dagokionez azterlana egiteke zegoela puntu hori mantendu behar ote zen ala ez, edo zerbitzu horren ordeztu, tamaina handiko hondakinak biltzeko zerbitzua handitu behar ote zen, baita kamerak jarri behar ziren, eta abar.

Eztabaida luzea bukatu ostean, bozketa egin da eta aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA.-** Okondoko landa-gunea garbitzeko kostua honela finantzatzea:

- Kostuaren % 50 Okondoko Udalak finantzatuko du.
- Gainerako % 50ari dagokionez, % 25 Aiarako Udalak finantzatuko du eta beste % 25, berriz, Artziniegako Udalak.

## **13.- ESKUALDEKO GARRAIOARI BURUZKO AZKEN INFORMAZIOA**

Saileko teknikariak jakinarazi du, autobusen neguko ordutegiari begira, erabiltzaileen eskura jarri dela:

- Txartelak erreserbatzeko aplikazioa.
- Diru-zorro txartela kargatzeko aplikazioa.

Eztabaida bukatu ostean, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

## **14.- ESKAERAK ETA GALDERAK**

Horri buruzko galderarik aurkeztu ez denez, amaitutzat eman da puntua.



---

Eta beste gairik ez dagoenez, eta legealdi honi dagokion azken formaltasuna beteta, legez bilkura amaitutzat eman da goian adierazitako eguneko **15:05ak** direnean. Era berean, presidenteak eta neuk, idazkariak, izenpetu dugu akta hau, eta neuk idatzitako guztia egiaztatzen dut.

**KUADRILLAKO PRESIDENTEA. ENCINA CASTRESANA ASTARLOA.**

**KUADRILLAKO IDAZKARIA. VIRGINIA CARCELÉN GARCÍA**

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA  
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**